

Benetako mugimendu soziala sortu da azken hamarkadetan euskararen inguruan, beste mugimendu sozialek dituzten ezaugarri berberak edo antzekoak dituena. Euskararen aldeko mugimendu sozialean botere estrategia nagusiki duten erakundeak daude eta baita ere kultur estrategia duten erakundeen helburua botere guneetan eragitea da eta kultur estrategia dutenena gizarte jokabideak aldatzea. Euskararen aldeko mugimendu sozialaren izaera, etorkizunean estrategia bat ala bestea nagusitzearen baitan egongo da hein handi batean.

EUSKARAREN ALDEKO MUGIMENDU SOZIALA

Imanol Agote

Euskararen aldeko mugimendu sozialari buruz argitaratu diren lanak aztertuz gero, deigarriak dira bi datu hauek: oso lan monografiko gutxi idatzi dira eta, gainera, mugimenduaren militanteek beraiek idatzitako lanak dira gehienak. Datu bilduma eta iritzi artikulua izan dira, oro har, militante hauek jorratutako ildoak. Ikerketarik, aldiz, ez da oraindik egin. Ez da hipotesi teorikorik formulatu, ez da metodologia zientifikorik erabili hipotesi horiek berretsi edo gezurtatzeko. Ez da, azkenik, beste mugimendu sozialarekiko azterketa gonbaratiborik egin ere. Euskal Herritik kanpo egindakoari bagagozkio, esan beharra dago soziologiak edo, nahiago bada, soziolinguistikak gutxi ikertu dituela hizkuntza gutxiagotuen aldeko mugimenduak. Fishman izan da, seguraski, joera nagusi horretatik ihes egin duen bakarrenetakoa.

«MUGIMENDU SOZIALA» KONTZEPTUAREN NONDIK NORAKOAK

«Mugimendu soziala» kontzeptua osatzen duen binomioaren osagai bakoitza aztertzeari ekingo diogu ondoren, hainbat argitasun aurkitu nahian. «Mugimendu» hitzak aditzera ematen dizkigun esanahien artean, hauek azpimarratu nahi ditut oraingoa:

- Lehendabizi, gertakizun eta eragile kolektibo baten aurrean gaude.

- Bigarren, gertakizun kolektibo hori jende askorengana iristen da eta, zenbait momentutan behintzat, herritar asko mobilizatzen dira helburu kolektibo horren inguruan, masa mugimendua osatuz.

- Hirugarren, nahiz eta askorengana iritsi, mugimenduaren sustatzailerak talde antolatuetan dauden kideak izaten dira. Alderdi politikoe-tako edo erakunde sozialetako partaideak ohi dira kide hauek, eta beren ardura mugimenduaren eguneroko jarduerara eta diru sostengua ziurtatzea da, besteak beste.

«Sozial» hitzak mugimenduaren izaera interklasista adierazten digu gehienetan. Alegia, bai maila ekonomikoari bai maila soziokulturalari dagokienean, sektore sozial ezberdinetako herritarrek parte hartzen dutela mugimenduan. Ezaugarri orokor honen salbuespenik ezagunena langileen mugimendua dugu.

«Mugimendu soziala» binomioa bere osotasunean hartuta, badira azpimarragarriak diren beste ezaugarri batzuk:

- Gizartean eragitea da mugimendu sozialen helburua. Gizarteko esparru edo arazo baten bilakaeran eragin nahi dute, gizarte aldaketa baten alde edo kontra lan eginez, beti ere gizarte mailako helburuak defendatuz kasuan kasuko taldekoen gainetik.

- Gutxieneko egonkortasuna eta iraupena izaten dituzte.

- Hedatuta egoten dira lurralde oso batean.

- Bukatzeko, gizartea identifikatzeko erreferentziak dira, bai jarreretan, bai diskurtsoan, baita mundu sinbolikoan ere.

Euskararen aldeko mugimendu sozialak ezaugarri horiek guztiak betetzen ditu nire iritzirako.

MUGIMENDU SOZIALEN ZERGATIA GAUR EGUNGO GIZARTEAN

Orainsu arte, banaketaren paradigma eta nazio arazoa izan dira erreferentzia ideologiko ia bakarrak mendebaldeko gizarte modernoetan. Banaketaren paradigmatikaren ereduari jarraiki, ondasun material, sozial

«Esan beharra dago soziologiak edo, nahia-go bada, soziolinguistikak gutxi ikertu dituela hizkuntza gutxiagotuen aldeko mugimenduak. Fishman izan da, seguraski, joera nagusi horretatik ihes egin duen bakarrene-takoa»

«Indarberrituta azaltzen zaizkigun interes sozial hauek ez dute klase edo nazio eduki garbirik. Nire ustez, bilakaera bera darama euskararen aldeko aldarrikapenak»

eta kulturalen banaketa izan da gizarte multzo handi batentzat helburu nagusia. «Ezker/eskuin» ardatzak paradigma horri erantzun dio funtsean.

Estatutik gabeko nazioen kasuan, banaketaren paradigmarekin batera, nazio arazoa azaldu da. Abertzaletasunaren ardatzak arazo horri erantzun nahi dio.

Alderdi politikoei eta gizarte mugimendu tradizionalak bi ardatz ideologiko nagusioi arabera jokatu dute. Are gehiago, mugimendu sozialek alderdi politikoen katenbegi politikoa eta ideologikoa izateko joera izan dute sarri askotan.

Gaur egungo gizartean, ordea, bi ardatz horiekin zuzenean zerikusirik ez duten beste interes batzuk sortu dira: ekologiararen interesa, feminismoarena, bakearena, etab. Indarberrituta azaltzen zaizkigun interes sozial hauek ez dute klase edo nazio eduki garbirik. Nire ustez, bilakaera bera darama euskararen aldeko aldarrikapenak. Izan ere, Euskal Herrian gero eta gutxiagok jotzen dute euskararen etorkizuna klase sozial baten edo abertzaleen arazotzat.

Bestalde, egun, arlo publikoaren eta pribatuaren arteko mugak ez dira lehen bezain garbi bereizten. Ekologiari dagokionez, esaterako, ekologiararen aldeko politika koherenteagoa eskatzen da; baina baita jarrera pertsonal ekologikoagoak ere. Gauza bera esan daiteke feminismoari buruz edo hizkuntza gutxiagotuei buruz. Izan ere, eskaerak erakunde publikoei edo alderdi politikoei ezezik, gizartea osatzen duten herri-tar guztiei ere zuzentzen zaizkiei.

Beraz, klase eta nazio edukirik gabeko interesak babesteko lan egiten dute hainbat mugimendu sozialek, diskurtso propioa garatuz. Mugimendu hauen helburua ez da alderdi politikoa ordezkatzeko, alderdi politikoa eta, oro har, gizartea interes horien alde jartzea baizik.

Mugimendu sozialen gaurkotasunak badu zerikusirik, bestalde, eskuintik zein ezkeretik kritikatzeko den administrazioaren gehiegizko interbentzionismoarekin. Administrazioaren erronka da bere dimentsioa birformulatzea eta gizarteari protagonismo handiagoa aitortzea.

MUGIMENDU SOZIALEN ESTRATEGIA NAGUSIAK

Sailkapen guztiek dauzkaten mugak onartuta ere, mugimendu sozia-

lak bi multzotan bana daitezke beren estrategiari begiratzen badiogu. Batetik, botere estrategia duten mugimenduak ditugu eta, bestetik, kultur estrategia dutenak.

Botere estrategia duten mugimendu sozialen helburua alderdi politikoen eta, batez ere, erakunde publikoen erabakietan eragitea da, beste ezeren gainetik. Mugimendu sozial hauek iritzi sortzaile edota presio talde dira. Helburu politiko jakinak bilatzen dituzte eta batzuk prest daude, eraginkortzat jotzen bada, edozein bitarteko erabiltzeko.

Kultur estrategia duten mugimendu sozialen helburua, berriz, gizarte harremanak aldatzea da, batik bat. Kultura, hemen, adierarik zabalean dago hartuta, hau da, gizarte jokabidetzat. Mugimendu sozial hauentzat oso garrantzitsua da iritzi publikoa alde egotea, eta, horregatik, kontu handiz aukeratzen dituzte bitartekoak.

Egia da errealitatea edozein teoria edo sailkapen baino askoz ere konplexuagoa eta aberatsagoa dela. Egia da, praktikan, botere eta kultur estrategiak batera aurkitzen direla mugimendu sozial askotan. Dena den, egia da, halaber, joera handia dagoela estrategia bat ala bestea nagusitzeko mugimendu sozialen praxian.

EUSKARAREN ALDEKO MUGIMENDU SOZIALAREN EZAUGARRIAK

Euskararen aldeko mugimendu soziala anitza da. Bertan, nagusiki botere estrategia duten taldeak aurki daitezke eta kultur estrategia dutenak. Jarraian, estrategia bakoitzaren ezaugarriak gogoratuko dira. Beste zenbait lanetan azaldu diren bezalaxe jaso dira ondorengo ezaugarriok.

A)BOTEREESTRATEGIA DUTEN TALDEEN EZAUGARRIAK.

- Behin eta berriro jartzen dute zalantzan hizkuntz politika ofiziala; elebakartasuna elebitasunari kontrajartzen diote eta lege markoaren aldaketa eskatzen dute.

- Eskakizun zehatzak eta zorrotzak egiten dizkiete botere publikoei. Talde hauen eragin esparruak erakunde publikoekin harreman zuzena duten arloak ohi dira, irakaskuntza eta administrazioa batik bat.

- Desadostasuna azpimarratzen dute adostasun puntuen gainetik.

«Sailkapen guztiek dauzkaten mugak onartuta ere, mugimendu sozialak bi multzotan bana daitezke beren estrategia-ri begiratzen badiogu. Batetik, botere estrategia duten mugimenduak ditugu eta, bestetik, kultur estrategia dutenak»

«Botere estrategia bada orientabide nagusia, mugimendu sozialak ez du alderdi politikoekiko autonomia diskurtsiborik izango. Mugimendua, beraz, alderdi politikoen berezko esparruan sartuko da eta ia beti bat etorriko da alderdi politiko batzuen aukerekin»

- Presio soziala, salaketa eta borroka dituzte talde hauek gidari. Horren ondorioz, jarrera erreibindikatzailleak eta borrokalariak azaltzen dituzte maiz.

- Abangardiaren eskemari jarraitzen zaizkio. Ez dituzte ekintza erradikalak baztertzen. Are gehiago, euskararentzat beharrezkotzat jotzen dutena jartzen dute batasunaren eta zabaltasunaren aurretik.

B) KULTURESTRATEGIA DUTEN TALDEEN EZAUGARRIAK

- Alderdi politikoen arteko liskar eta interferentziarik gabe lan egin nahi dute. Ildo horretatik, pentsakera eta ideologia desberdineko herritarrek bildu nahi dituzte euskararen aldeko herri ekimen ez alderdikoian, direla ezkerrekoak nahiz eskuinekoak, abertzaleak nahiz ez abertzaleak. Horretarako, zabaltasunez eta gizarte adostasuna ardatz dutela jokatzeko dute.

- Egunerokotasunean oinarrituta, euskal hizkuntz komunitatea egituratzea eta artikulatzea dute helburu.

- Proposamen positiboak eta errealistak egiten dituzte, helburu mailakatuen arabera egitasmo zehatzak bultzatuz.

EUSKARAREN ALDEKO MUGIMENDU SOZIALAREN ETORKIZUNA

Etorkizunean nagusituko den estrategiak baldintzatuko du euskararen aldeko mugimendu sozialaren norabidea. Botere estrategia bada orientabide nagusia, mugimendu sozialak ez du alderdi politikoekiko autonomia diskurtsiborik izango. Mugimendua, beraz, alderdi politikoen berezko esparruan sartuko da eta ia beti bat etorriko da alderdi politiko batzuen aukerekin. Herritarrek, bestalde, alderdi politiko jakin horiekin identifikatuko du mugimendu soziala eta hori kaltegarria izango da mugimendu zabala eta anitza gorpuzteko.

Kontuan hartu behar da, era berean, euskararen aldeko mugimendu sozialak planteatu dituen eskakizun politikoek beti izan dutela alderdi politikoren baten babes. Alde honetatik, mugimendu sozialaren zeregina ordezkagarria izan liteke.

Kultur estrategia nagusituz gero, alderdi politikoen egitekoa eta euskararen aldeko mugimendu sozialarena osagarriak izango dira. Eus-

kararen erabilera alor publikoetan arau eta normal dadin arduratzea izango da alderdi politikoaren lana, eta mugimendu sozialarena, aldiz, gizarte harremanak euskalduntzea; erakunde publikoen laguntzaz, jakina. Arazo bakarra erakunde publikoen ahaleginak eta mugimendu sozialarenak norantza berean edo beretsuan jartzea da, honela bakarrik lortuko baititugu benetan ondorio emankorrak.